

Difteria kolektiboa

Koldo Sagasti

Girona aldean difteriak kutsatutako haur baten aferak alarma guztiak piztu ditu iritzi publikoan. Ustez, duela 30 urte desagertutako izurriteak haren kontrako txertorik jaso ez zuen umea jo du, eta ondokoengana ere hedatze-ko arriskua dago. Bakterioak ongarriztatuta-ko eremua topatu du Kataluniako eskualde hartan, izan ere, bertan haurren %3 gaitz infekziosoaren aurka txertatu gabe daude; ez munduan leku askotan bezala txertoa esku-
ra ez dutelako, gurasoek seme-alabei immu-
nizazioa ukatzea erabaki dutelako baizik.

Haurren txertaketaren aurkako iritzi ko-
rronteak gero eta jarraitzaile gehiago dauz-
ka ustezko terapia alternatiboen aldeko

hautua egiten dutenen artean. Gustu guz-
tietakoak daude, oinazea begi ninian ira-
kurtzen dizutenetik hasita, minbizia medi-
tazioaren bidez sendatzen dutenetara arte. Baina sineskeria horiek guztiek, “alternati-
bo” abizena eransten badute ere, komune-
ko ezaugarriak dauzkate betiko erlijioekin: ez dago sendabidearen eraginkortasuna bermatzen duen zantzu zientifikorik, sinis-
tu egin behar da, eta kito; eta ez dute onar-
tzen haien dogmak kolokan jarriko dituen kritikarik, kritika hori arrazoibide zientifi-
koz jantzita badago ere.

1553an kristauek sutan erreta hiltzera kondenatu zuten Miguel Servet zientziala-
ria, odol zirkulazioaren berri ematera au-

sartu zelako; Galileo Galilei ere gaitzetsi egin zuen Eliza Katolikoak, 1633an, orduko sineskeria geozentrikoak ezbaian jarri zi-
tuelako. Pentsaera zientifikoak beti eragin ditu susmo txarrak, buruari eragitea baino erosoago egiten zaigulako itsu-itsu sinis-
tea, pentsaera kritikoak inguratzen gaituen errealitatea kolokan jartzera eramaten gai-
tuelako. Serveten garaietan inor gutxi au-
sartu zen izainen bidezko tratamendua za-
lantzan jartzera, eta milaka lagun hil ziren odolustuta. Gaur, munduko txoko honetan behintzat, gaixotasunari aurre egiteko tres-
nak ditugun pribilegiatuetakoak gara, bai-
na sinesterrazagoak egiten zaizkigu izai-
nak, haurrak odolusteraino. •

Iraungitze data

Mirari Martiarena

E kainaren 13an da San Antonio egu-
na, mundu guztiak daki santu ho-
nen bueltan ospatzen direla festak Euskal Herriko hainbat txokotan, Ereñozun, Errezilen edo Urkiolan adibidez. Hau irakurtzen ari zarela imajinatu, ohitu-
rak dion bezala, Urkiolako meteoritoaren inguruan bueltaka ari direla Euskal Herriko neska zahar eta mutil zahar guztiak. San Antoniori eskatzeko senar edo emazte on bana, abestiak dion bezala. Baina noiz jar-
tzen zaio pertsona bati eta bereziki emaku-
me bati “neska zahar” etiketa?

Zenbat urte nituen galdetu zidan orain gutxi 70 urteren bueltako gizon batek. 29 egiteko nituela esan nion. Bigarren galdera

ea mutil-lagunik banuen. Ez zen bere bu-
ruan beste aukerarik sartzen nonbait. Eran-
tzun hori nire baitarako gorde eta ezetz erantzun nion. Gizonak irribarretsu jarraitu zuen: «Urtebeteko epea duzu orduan no-
bioa bilatzeko, 30 urtetik gorako emakume-
ak gizonoi ez zaizkigu gustatzen». Berriz ere isilik geratzea hobe zela pentsatu eta irriba-
rre egin nuen. Ez nion esan bera bezalako bat ondoan izatekotan hobe nuela bakarrik egon edo ea bere emazteak oraindik 30 urte zeuzkan.

Badirudi gizarte honetan 30 urteren buel-
tan bikoterik ez izatea delitua dela. Bereziki emakumeontzat. Ai gu gaixook, babestuko gaituen inor gabe. Bakarrik egotera konde-

natuak. 30 urtera arte eskaparatean gaude-
nak, 35 urtera arte beherapenetan eta 40 ur-
terekin almazen ilun batean gordeak eta baztertuak. Inongo printze urdinek ez gai-
tuelako aukeratu bere gazteluko neskame izateko. Ez diogulako nonbait San Antoniori senar on bat eskatu behar beste aldiz edo Urkiolan ez ditugulako mareatu arte buel-
tak eman. 30 urtetan jarri zidan iraungitze data 70 urteko gizonak, baina ez da adin kontua horrela pentsatzea. Nire adin buel-
tan ere sumatzen baititut iraungitze data horrekin kezkatutakoak eta niri begira hori pentsatzen dutenak. Ustez gaindituta behar zuten ideiak eta aurreiritziak 2015eko San Antonio egunean oraindik ez dira iraungi. •